



# EMAIOZU EUSKARA ETXEAN

Pertsona guztiok jaiotzen garenetik hizkuntza bat baino gehiago ikasteko prestatuta gaude. Euskal Herrian eta XXI. mendean bizi izanda, argi dago 2, 3 edo 4 hizkuntza ikastera ailegatuko direla gure seme-alabak.

Baina ez bakarrik ikastea, maitatzea eta euskaraz bizitzea ere bilatzen dugu.

Gehigarri honekin, zuoi, Getxoko gurasooi, batzuk euskaldunak, beste batzuk erdaldunak eta beste asko bietarikoak, klabe batzuk eskaini nahi dizkizuegu eta datozen hilabeteetan, modu zehatzagoan egingo duguna aurreratu nahi dizuegu.

Izan ere, euskararen transmisioarekin lotutako 3 ildo jorratuko ditugu laster.

## EMAIOZU BIZIA

Umea izateko zorian zaudete; erditze-prestaketak hasi dituzue; zure alabak edo semeak etorkizun handia du aurretik; artista izango da edo medikua edo astronauta...berak nahi duena eta hainbat herrialde bisitatuko du, hainbat jende ezagutuko du eta hainbat hizkuntza hitz egingo ditu; eta zuek nahi duzue euskaraz ere egitea.

Jaio aurretik ere, umeek ikasteko gaitasun izugarria dute eta hori aprobetxatu ahal dugu. Zelan? Galdetu erditzea prestatzeko saioetan; "Emaiozu bizia / Dale vida al Euskara" materiala banatuko dizuete, zuentzat interesgarria eta erabilgarria den informazio askorekin.



## EMAN GILTZA

Getxoko Udalean, Bizkaiko beste udalerrri batzuetan bezala, "Eman giltza" deitutako kanpainan dihardugu eta zuekin ospatu nahi dugu zuen umearen jaiotza; hori berri ona da guztiontzat, umeak poz-iturri dira eta zuentzat erantzukizuna ere bai; bere biziari buruzko hainbat erabaki hartu beharko dituzue; euren artean euskararena.

"Eman Giltza", 2017an jaiotako umeen aitzakiarekin banatuko dizuegun etxerako "laguntza" da; bertan, zuen alaba edo semearekin euskaraz aritzeko oinarritzkoa dago; musika, euskarazko berbak eta zuentzat, zalantza betetako gurasoontzat, Euskara goiz ikastearen abantailak eta aholkuak.

Sartu [www.emangiltza.eus](http://www.emangiltza.eus) webgunean eta informatu zaitez eta gogoratu beste hainbat elkarrek ere euskaraz bizitzeko lanean dihardutela Getxon. Begiratu adibidez SENDI proiektuaren barruko ekimenak, besteak beste "Olgetan Euskaraz", ([www.egizu.eus/send](http://www.egizu.eus/send)); zure ume txikiarekin eta euskaraz egin ahal dituzuen hainbat jardura topatu ahal izango dituzu.



Etxean ikusia,



haurrak

ikasía.



## ESKOLAN MATRIKULATZERAKOAN

Laster, zuen alaba edo semea eskolaratzeko momentua helduko da; bere etorkizunari buruzko erabaki garrantzitsuak hartu behar dituzue; Euskara ere ikastea nahi duzue; ez bakarrik ikastea, maitatzea eta bere sentitzea ere bai...baina zalantzak dituzue; zuek ez dakizue euskararik; zelan lagundu ahal diozue? Beraien ikas-prozesutik kanpo geratuko zarete? Ingelesa ere ikastea nahi duzue; ez da gehiegi izango?

Galdera asko dira eta Euskara Zerbitzutik erantzutea interesatzen zaigu; horretarako Iñaki Eizmendi aditua ekarriko dugu hitzaldiak ematera. Berak urteak daramatza guraso erdaldunei eskolaratzearen inguruko zalantzak argitzen eta gurean egongo da urtarrilaren 25ean eta 26an. *No sabemos euskera, ¿Cómo ayudar a nuestros hijos e hijas?* izango da hitzaldien gaia.

UMELEBIDUNEN  
GURASOENTZAKO ESKILIBURUA



GUÍA PRÁCTICA PARA PADRES Y MADRES  
DE NIÑOS Y NIÑAS BILÍNGÜES

# ETXEAN ERE LAGUNDU AHAL DIEGU

Gizarte eleanitzean bizi gara; Euskara berreskuratu nahi dugu eta era berean hirugarren hizkuntza bat orokortu nahi dugu gure gizartean, normalean ingelesa. Testuinguru honetan ohikoak dira zalantzak eta galderak, batez ere gurasoen aldetik.

Euskara Zerbitzura askotan heltzen zaizkigu honelako galderak eta aditu biren lana laburtzearekin lagundu nahi dizuegu, hau da, Alma Ada Flor eta Colin Baker pedagogo, San Franciscoko Unibertsitateko irakasle eta eleaniztasunean adituen lanarekin.

Alma Florrek eta Colin Bakerrek hizkuntza asko hitz egiten zituzten gizarteak aztertu zituzten eta *Guía para padres y profesores de niños bilingües* izeneko liburua argitaratu zuten.

Gida horretatik, gurean sarrien ematen diren zalantza eta galdera batzuk atara ditugu eta multzo bitan banatu ditugu; alde batetik, zaintzaile edo/eta guraso mistoek (erdaldunak eta euskaldunak) osatzen dituzten familientzako eta bestetik, inguru euskaldunean hazi arren, Euskara egiteko ohiturarik ez duten umeen inguruko zalantzak eta kezak.

Jakin badakigu ez dagoela formula magikorik baina ale berezi honetan, gaur egun, soziolinguistikaren ikuspuntutik ematen diren zenbait aholku zabaldu nahi ditugu:

## PLANTEATU HIZKUNTZAREN KONTUA UMEA IZAN AURRETIK.

Komentatu zelan jokatu duzuen, jarri arreta erditzea prestatzeko saioetan hizkuntzaren transmisioari buruz esaten denari...

## LOTU BETI EUSKARA MOMENTU ALAI ETA GOXOekin, POZAREKIN.

Hizkuntza ikasteak jarduera atsegina izan behar du.

Getxon, oso ugariak dira gurasoetako batak edo biak Euskara ez menperatzea; hona hemen Alma Ada Florren eta Colin Bakerren zenbait aholku beraientzat:

### 1.-BAKOITZAK BERE HIZKUNTZAN EGIN DIEZAIOLA UMEARI.

Eleaniztasuna aberasgarria da. Eleaniztasuna onuragarria da.

### 2.- EMAN GARRANTZIA GAUZA TXIKIEI.

Horrela, Euskara menperatzen ez duen aitak edo amak ere hau balioztatzen du eta afektibitatez kargatzen du.

### 3.-BILATU UMEZAIN EUSKALDUNA.

### 4.-SORTU ERRUTINA LINGUISTIKOAK:

- EGIN euskaraz agurrak, esamoldeak, hitz gakoak...
- ERABILI hitz solteak eta positiboak.

### 5.-JARRI INTERESA SEME EDO ALABEN ETXERAKO LANETAN.

Horrela, Euskara menperatzen ez duenak interesa erakutsiko du eta motibagarria izango da.

### 6.-LAGUNDU FAMILIATIK KANPO GIRO EUSKALDUNA SORTZEN:

Kontuan izan hizkuntza ez dela bakarrik familiarengandik jasotzen; irakas-kuntza, eskola orduz kanpoko jarduerak, musika, telebista, zinea eta bideoak... lagungarriak dira, batez ere lexikoa lantzen laguntzen dutelako.

**AUKERATU** euskarazko ereduak, tailerrak, kirola...

Bikote mistoak bezala, gero eta ugariagoak dira Euskara familia-hizkuntza dutenak eta hauetan zalantzak eta galderak beste batzuk izaten dira:

### 1.-EZ KEZKATU, EZ DU ARAZORIK IZANGO GAZTELANIA, INGELESA EDO BESTE HIZKUNTZA BATZUK ETXETIK KANPO IKASTEKO.

### 2.-EUSKARA IZAN DADILA GURASOON ARTEKO HIZKUNTZA ERE.

Berebiziko garrantzia du bikotean erabiltzen den hizkuntzak, koherenteak izan behar baitute zuen diskurtsoak eta zuen ekintzek: ezin zaio eskatu umeari euskaraz egiteko gero etxean beste molde batzuk ikusten baditu. Gauza bera parkeetan: ez da koherentea umei euskaraz zuzentzea eta gero beste guraso euskaldun batzuekin erdaraz aritzea. Umea horretaz guztiaz konturatzen da.

### 3.-FAMILIAKO OHITURETAN SARTU EUSKARAZKO KONTSUMOA:

pelikulak, antzezlanak, ipuin-kontalariak, zirkuak.

### 4.-TINKO EUTSI ETA EGIN UMEARI EUSKARAZ

nahiz eta berak erdaraz erantzun. Askotan lotsak eta beldurrak mugatzen du umea/gaztea. Saiatu garrantzia kentzen.

### 5.-ENKARGATU NEBA-ARREBA NAGUSIEI

txikiagoaren zaintza linguistikoa.

### 6.-Zaintzailerik hartzen baduzue, ARDURATU EUSKARADUNAK IZATEAZ

eta euskaraz jardutea umearekin.

### 7.-SUSTATU ZURE SEME EDO ALABAK EUSKARAZ IRAKURTZE EDO IDAZTEA.

Horretarako hobe zu ere irakurtzen edo idazten ikusten bazaitu eta ez azpimarratu beti akatsak eta txarto egindakoak.

### ZABALDU AITITA-AMAMEI EDO BESTE ZAINZAILA BATZUEI ERE AHOAK.

Hizkuntza bat baino gehiago bizi dituen gizartea osatzen dugu baina kontuan izan Euskara dela ahulena, arriskuan duguna eta bereziki lagundu behar duguna.

Bakarrik hemen egiten da Euskara, hizkuntza endemikoa da, hemen egiten ez bada, ez da inon egingo, hemen babestu eta sustatzen ez bada, galdu egingo da.



Iñaki Eizmendi  
**NO SABEMOS EUSKERA,  
¿CÓMO PODRIAMOS AYUDAR A  
NUESTROS HIJOS E HIJAS?**

**Algorta:**

Eguna: urtarrilaren 25a • Ordua: 18:30 • Tokia: Juan Bautista Zabala ikastetxea, Zabala kalea 3B.

**Areeta/Romo:**

Eguna: urtarrilaren 26a • Ordua: 18:30 • Tokia: Romo ikastetxea, Gobelaurre kalea 41.

Hurtzaindegi zerbitzua egongo da.  
Eska ezazu: [euskara@getxo.eus](mailto:euskara@getxo.eus) / 94 466 00 10  
Hitzaldi biak gaztelaniaz izango dira.

